

BERBETAN ESKARNE LARRINAGA PSIKOLOGOA · GEHIGARRIA JAVIER GALDOSI-ELKARRIZKETA
KIROLA SANLO ELGOIBAR ESKUBALOI TALDEEN AURKEZPENA

BARRREN

ASTEKARIA



Errotatxo Elkarteak,
drogen inguruko zalantzak argituz

"BIZIOA, KALTE EGITEN DIZUN AFIZIOA" (esaera zaharra)

ELGOIBAR K O A S T E K A R I A · 2003ko azaroaren 7a/XI. urtea/464. zkia



ANTT CONSULTORIA

INMOBILIARIA

Antonio Arrillaga, 1 beheka

Tel.: 943 74 80 92

ERAIKUNTZA BERRIAK

Adi gazte!

ALTZOLA

* Aukera ezin hobea 20 millioitik aurrera

LEKU EDER

* Azken Etxebizitzak

* Lokalak

BARTOLOME ETA FRANTZISKO DEUNA

* 2 logelako etxeak

BIGARREN ESKUKOAK

ETXEBIZITZAK

Santa Ana: 3 logela, egongela, sukaldea, terraza eguskitsua. Sartzeko moduan.

169.000 €

Santa Ana: 3 logela, egongela, sukaldea, igogailua. Sartzeko moduan.

177.298,57 €

GARAJEAK eta LOKALAK

Erdialdean: Marraduna. 21.000 €

San Roke: Itxia. 15 m². 22.900 €

Marraduna. 25 m². 21.000 €

San Roke: Alokairuan. 54 € / hileko

Urasandi: Itxia. 27m². 33.055,67 €

Urasandi: Lokala. 90 m². 66.000€



ingurumena

Zure esku dago

INGURUMENA ZAINDUZ ETXEKO GASTUAK GUTXITU NAHI DITUZU?

Eman ezazu izena, **DOAN**, GAP Programan



GAP (Ekintza Plan Globala) programan parte hartzen duten etxeek %20 aurreztu dezakete urteko gastuetan eta eskuratu ahal dute etxea ekologikoa dela agiazatzen duen Nazio Batuen ziurtagiria

Ondorengo datuak gutunazal bidez sartu, zaila jarri, eta helbide honetara bidali:
Izena - abizenak: **GAP 2013 ADI 3108 posta kutxa - 48080 Bilbo**
Helbidea:
Posta-kodea:
Herria:
Tfn:

(Debabarrena etxeetarako)



www.ingurumena.nettgap

gurea duen herria

un país es nuestra

TELISI 14.1121.124

coeinnv_vasco



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



Norberaren datuak inplikatuak dira eta LORTAD legea betez erabiltzen dira

40 URTE 40 ISTORIO



ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA



34 TOLETXE taberna

Akaso aste honetako izango da Elgoibarko Izarraren historiako kronikarik beltzena. 2000ko apirillean ilusio eta helburu handiekin ekin genion Toletxe proiektuari. Ez genuen, besterik gabe, taberna bat zabaldu nahi; herritarrentzat bilgune bat prestatzea zen gure desioa; lagun giroa, euskara eta euskal kultura bilduko zituen espazio bat antolatu nahi genuen.

Baina Toletxeko atea zabaldu orduko konturatu ginen gauzak ez zihoazela guk pentsatu bezala. Batetik, Toletxe gaineko bizilagunekin hasiera-hasieratik izan genituen arazoak. Eta, bestetik, jendea ez zen guk nahi beste hurreratzen Toletxera. Eta hasieran argia eta ilusioa zena, gris eta etsipen kolorea hartzen hasi zen. Saiatu ginen handik eta hemendik soluzioren bat topatzen, baina alferrik. Azkenean Toletxeko atea ixtea erabaki genuen. Pena handiz, baina ez genuen beste irtenbiderik.

Baina arazoak ez ziren atea ixkitakoan amaitu. Sekulako diru zuloa geneukan aurrean. Une batez, Elgoibarko Izarraren atea ere itxi beharko genituela pentsatu genuen. Baina elkarte baten indarra eta erreakziorako gaitasuna momentu zailtan erakutsi behar omen da. Eta guk ere, batzuen eta besteen laguntzarekin, bizirik irauteko besteko indarra eta kemena atera genuen; ez dakigu nondik, baina aurrera egiteko ilusioak gaina hartu zion dena bertan behera lagatzeko tentazioari.

Amaitu da Toletxeko amesgaiztoa. Esnatu eta begiak zabal-zabalik dauzkagula aurrera egitera goaz. Eskarmentua bidelagun dugula. Eta, ahaztu baino lehen, mila esker tunel beltzean egon garen bitartean lagundu diguzuen guztioi.

Imanol Larraihiga

iritzial



Printzea eta kazetaria

Ez dakit telebistaz edo irratiz egunean zehar ematen diren berriak jarraitzeko ohiturarik duzuen ala ez. Sarri aspergarria gerta dakigukeen arren, komenigarria iruditzen zait kate ezberdinetako ikuspuntu ezberdinetatik berriok gureganatzea.

Estatuko edozein kateri arreta eskaintzen badiozue, politika eta futbola izan ohi dira hizpide nagusi. Kokoteraino jarri arte. Lehenbizikoan, Ibarretxeren Planari zenbait eta astindu handiagoak ematean datza argudio nagusia. Beno, ez beti; noizean behin PP eta PSOEren ika-mikaren bat ere islatzen baitute. Batak bestearen etxeko trapaak harrotzeari ekiten dionean batipat. Futbolari dagokionean, Real Madrid barra-barra. Espainiako Ligako ekiporik handiena, liluratsuen, ia bakarra eta, hara non, Aznar presidentearen gustukoena.

Denboraren eskarmentuarekin, arduragabetu egin naiz esaten dituztenetaz. Eguneroko astakeriak entzutean, oraindik ere barnean geldirik dakidakeen nazka puntu hori barregarritzat jotzen hasia naiz. Abilak dira, hala ere, etengabe asperrarazteko notiziak sortzen. Oraingoan Printzea ezkontzen dela iragarri digute. Zorion betea denontzat! Mundua gelditu egin da; Irak-eko gerra su-etenean sartu da; Beckham desagertu egin da eta Ibarretxeren Plana kajoian sartu dute. Errepublikano ziren asko monarkiko bihurtu dira eta monarkiko diren asko ezin irentsiz dabilta aukeratutako neskaren behe-mailako eta dibortziatu izaera. Lehen berriemate arrunt bat zena inoiz izan den emakumerik argiena eta ederrena bihurtu dute. Dena delakoa printzea ezkondu ahal izateko.

Behin bere aitona zenak esan omen zion: "Tu obligacidn es casarte y tener descendencia. Luego ya haras lo que quients". Borboi bat dela eta bere aitaren genak gainean izango dituela kontutan hartuta, ba ote daki neska honek non sartu den?

Gotzon Arrieta

hikKexak	5
motz MotZ	8
gehigarria	13
kiRolAk	20

Zuzenketa

Duela bi asteko BARREN astekarian, 462. aleko erreportajearen, egindako akats bat zuzendu nahi dugu. Erreportajearen sarreran, "Udal Euskaltegiak atzerritarren seme-alabei euskaraz irakasteko zerbitzua jarri zuen martxan" idatzi genuen. Hau oker dago, Udalaren Euskara batzordeak herriko ikastetxeekin batera antolatutako saio bereziak baitziren.

Urruzunoren begi ezkutua

EUSKAL HERRIA DIXIT:



Nik, EUSKAL HERRIAK, NAN
zenbaki gabeak eta bizileku faltan bizi
denak, zera adierazten du,

TORTURATZEN NAUTE.

ZIGORTZEN NAUTE.

AHOTSA KENTZEN DIDATE.

Eskatzen dut, berehala, hori
guzti hori eta gehiago ez gertatzeko
BEREZ DAGOKIDAN BABESA.

Euskal Herrian, beti.

MINISTERROR DE LA ESPAÑA CAÑI :

Gutun honen bitartez jakinarazten dizut, zure eskaera gaitzetsi
dugula. Halaber, jakin ezazu, eskabide horiek egiteko tokia
CIENCIA FICCION departamendua dela, eta ez hau.

La Ciudad del Imperio, 7-11-2003.

Amaia Urzelai

LAGUN BATI

Iritsi da berriz ere gure zita eta hemen naukazu hutsik egin gabe. Seigarrena aurten. Beti hainbeste maite izan dudana udazkenak kutsu berezia du ordutik. Sentimenduak biluzteko unea eskaintzen dit. Bat egiten dut hego haize eta hostoen joan-etorriekin. Malokotan pasa zen egunsenti hura eta ondorenak samin pozez oroitzen ditut, identifikatzen zintuen irribarre hura barneratuta dudalako. Bizitzak horrela nahi izan duelako, egunean bi aldiz pasatzen naiz geltokitizat hartu zenuen lekutik eta nahi ezta ere, beti konpartitzen dut zurekin pentsamenduren bat, sentipenen bat. Askotan gertuko beste edozein baino askoz gertuago zaude nigandik. Beti esan ohi dudana bezala, gauza bakarra falta zait, bostekoa trukatzea. Bihar arte Sera, muxu bat.

I.A.
15.377.030

ASTEKARIA

BaRRen

Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

943 74 41 12

Publizitatea:

☎ 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-posta:

barren@topagunea.com

Helbide informatikoa:

www.topagunea.com/barren

ARGITARATZAILA

Elgoibarko Mana

WW,

ELGOIBARKO ZARRA

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



U;)

1:111 kutxa
ruri esker

4 DANOBAT
PARAGUING HERRAMITZENTA

INGOITI
GRUPO DANORAT

E TA TA

MUM

- Herritar batek espainiar ejertzitza gure ingurunean egiten ari den maniobrak direla-eta, ondorengo azaldu digu: "Azkenaldi honetan espainiar ejertzitza maniobrak egiten ari da Euskal Herriko hainbat tokitan helikopteroekin, txakurrekin, parakaidista eta guzti. Eta astearte honetan Elgoibarren bertan egon dira: goizeko 8.45ean 20 soldadu inguru kamutlajez jantzita, txapela beltzekin eta armak eskutan zutela Olaso auzotik sartzen ikusi nituen. Orain dela gutxi ere, Goardia Zibilak kontrolak jarri ditu herri barruan gaztetxoei karneta eskatuz. Gauza horien aurrean Udalak salaketa ofiziala egin beharko lukeela uste dut".



- Artetxeko bizilagun batek esan digunez, Pedro Muguruza Etorbidean, kotxeak polikiago ibiltzeko baden gehiago jarri beharko lirateke: "Ume asko ibiltzen da ingurune honetan, eta kotxeak oso azkar ibiltzen dira. Ezbeharren bat gertatu aurretik, baden gehiago jarri beharko lirateke, kotxeak polikiago ibiltzera derrigortzeko".

- Herritar batek esan digunez, kanposantuko sarrerako eskailerek oso altura handia daukate, eta jende askok arazoak izaten ditu: "Santu Guztien Egunean ikusi nuenez, jende askok kanposantura sartzeko arazoak zituen. Sarrerako eskailera oso altua da, eta adineko jendea oso gaizki moldatzen da. Egun hori berezia izaten da, baina urte guztian zehar ibiltzen da jendea kanposantuan, batez ere nagusiak, eta sarrera hori konpondu egin behar da, ezbehar larriren bat gertatu baino lehen".

TXALOAK

- Gizonezko batek Udala txalotu nahi du, Leku Ederren "pipican" delakoa ipini dutelako: "Herria txakun mantentzeko lehenengo pausoa eman du LLMak, ea orain jendeak eramaten dituen txakurrak bertara, eta erabiipena ematen zaion".



PROGAKPERANTZUNI

Errotatxo Elkartearen sortu zenetik, gauzak asko aldatu dira Elgoibarren. Garai berriak bizi ditugu, eta Errotatxo Elkartearen errealtatea ere, desberdina da gaur egun. Errotatxok bere mugak zabaldu nahi ditu, herritar guztiengana iristeko asmoz. Herritarrek drogen inguruan dauzkaten zalantza eta kezka guztiak argitzea da Errotatxoren helburua, eta horretarako, zerbitzu berri bat jarri dute martxan. Honetaz gain, drogen efektuak ezagutarazteko asmoz, tailer desberdinak antolatu dituzte. Gaurkoan, Maider Gastesi eta Ainhoa Mateorekin hitz egin dugu, Errotatxoren nondik norako guztiak hobeto ezagutzeko.

Errotatxoren historia


1985. urte inguruan sortu zen Errotatxo Elkartearen. Garai hartan oraindik ezezaguna zen gaixotasunari aurre egin nahian zenbait herritar elkartu ziren. HIESaz ari gara. Gure herrian tamalez, oso ezaguna bihurtu zen gaixotasun hau, eta ez ziren gutxi izan HIESak jota hil zirenak. Errotatxoko kideek esan digutenez, Elgoibarren belaunaldi oso bat falta da. Maider Gastesik azaldu digunez, beharrak bultzatuta sortu zen Errotatxo: "Jendea HIESak jota hiltzen hasi zen, eta gurasoek ez zekiten ezer gaixotasun honen inguruan. Informazioa eta laguntza jasotzeko beharrak bultzatu zituen herritarrak Errotatxo Elkartearen sortzera".

Herritarrek oso ondo hartu zuten Errotatxoren sorrera, baina noski, beste garai batzuk ziren: "Heroina asko kontsumitzen zen garai hartan, eta jende asko zegoen engantxatuta. Jendea hiltzen hasi zen, eta inork ez zekien zergatik. Herritar asko hurbiltzen zen orduan Errotatxora informazio eske".

Aire berriak Errotatxon

Joan zen irailetik aurrera, lantalde berria dago Errotatxo Elkartearen: Maider Gastesi, Ainhoa Mateo, Naiara Bernal eta Evelyn Santosek osatzen dute Errotatxo. Lantalde berriak, aire berriak eskaini dizkio Errotatxori. Elkartearen irudia ere aldatu egin dute. Logotipo berria aukeratzeko lehiaketa antolatu zuten, eta Maitane Leizabe izan da irabazlea.

Denborak ez du barkatzen, eta gauza guztiak aldatzen diren moduan, Errotatxo ere, aldatu egin da: "Kontsumoak aldatu egin dira, gizartea eta gazteen mobida ere desberdina da. Droga berriak daude gure artean, diseinuzkoak, extasisa, anfetaminak... Denok dakigu txarrak direla, baina ez dakigu benetan zeintzuk diren kalteak. Jendeari horren guztiaren gaineko informazioa eskaini nahi diogu".



"Herritarrei drogei buruzko informazioa ematea da gure helburua, ez dugu inor drogak lagatzera behartu nahi"

Maider Gastesi

Errotatxok zerbitzu berri bat jarri du herritarren eskura. Helburua elgoibartarrek drogen inguruan daukaten jakinmina asetzea da. Horretarako, Maider Gastesi asteazkenero arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara egoten da elkartearen Artetxan daukan lokalean. Hala ere, galdetzaile anonimoek ere badute galderak luzatzeko aukera telefonoz [943-74 24 47](tel:943-74-24-47) edo posta elektronikoko bidez (errotatxo@telefonica.net).

Argi utzi nahi izan zuten, beraiek informazioa emateko zerbitzua jarri dutela martxan, eta ez dutela inor drogak uztera bultzatuko: "18 urtetik gorakoak baldin badira, beraien buruaren jabe dira. Guk drogen efektuak


buruz informatuko ditugu, eta ez dugu inor drogak lagatzera behartuko".

Erantzun eskasa

Martxoan jarri zuten martxan zerbitzu hau, eta esan digutenez, oso kontsulta gutxi jaso dituzte: "Uste genuena baino askoz kontsulta gutxiago jaso ditugu. Ez dakit kanpaina gaizki egin dugun, edo ordutegia ez den egokiena. Hala ere, korreoz edo telefonoz kontsulta gehiago jasotzea espero genuen". Arrazoia ugari aipatu zituzten zerbitzu honen arrakasta eskasa azaltzeko: "Droga kontsumitzen dutenek, benetan kontsumitu nahi dute, moda delako, eta oso ondo pasatzen dutelako, eta hori moztea ez dutenez nahi, ez dira informazio bila etortzen". Honekin batera, askotan lotsa eta beldurra izaten omen dira oztopo nagusiak: "Jende asko ez da ausartzen ezezagun bati arazoak kontatzera".

Bestalde, Errotatxo Elkartearen herritarrentzat ezezaguna dela aipatu digute: "Jendeak badaki existitzen garela, baina askok HIESarekin lotzen gaituzte, eta guk argi utzi nahi dugu HIESa eta Drogenpeketasunaren Prebentziorako Elkartearen garaia".

ERRT5X0K EMANGO DIZU




Komunikazioa beharrezkoa

Guraso eta seme-alaben arteko komunikazioa klabea da drogen prebentzioan. Maider Gastesik esan digunez, gurasoen kontsultak espero zituzten, baina ez dira iritsi: "Gurasoek badakite gazteen artean zer mobida dagoen, baina beti pentsatzen dute beraien seme-alaba ez dela hor ibiliko, besteen asuntua dela uste dute". Honelako kasuetan, komunikazioa oinarritzkoa da, eta Errotatzok hitzaldi bat antolatzeko asmoa dauka: "Seme-alabengana modu egokian gerturatzeko klabeak ematen saiatuko gara".

HIESaren astea

Abenduaren 1 a HIESaren Nazioarteko Eguna da, eta "Bazterketarik ez" lemapean Errotatzok hainbat ekitaldi antolatuko ditu. Printzipioz, Ongarrirekin elkarlanean pelikula bat emango dute, eta HIESaren birusaz kutsatutako emakume batek hitzaldi bat eskainiko du: "Haurdun dagoen emakumea da, eta esperientzia oso interesgarria dauka kontatzeko. Askotan kutsatutako pertsonak kalean bizi diren pertsona rakitikoak direla uste dugu, eta gu bezalako pertsonak direla azaldu nahi dugu". Diruz ez dabilta oso ondo, eta askotan zailtasunak izaten dituzte ekitaldiak antolatzeko. Bide batez, eskerrak eman nahi dizkiete dirulaguntzak ematen dizkieten erakundeek: Foru Aldundia, Danobat, Goiti eta Elkarteko bazkideei, urte askotan lagundu dietelako.



Kannabis tailerra

Drogen gaineko informazioa emateko ahalegin horretan, Errotatzok Kannabis tailerra antolatu du. 6 asteko iraupena izan du tailer honek, eta berriz ere, partaidetza falta izan da arazoa: "Askok kontsumoaren kontrako tailerra dela pentsatuko zuten, eta tailer honen helburua, kannabisaren gaineko informazioa eskaintzea zen, arriskuak ezagutzuz, kontsumo erreponsanblea egiteko". Jende gutxi eman du izena, baina tailerrean parte hartu dutenak oso gustura ibili direla aipatu digute. Oso aberasgarria izan dela, eta gauza asko ikasi dituztela azaldu digute: "Norberaren kontsumoaren historia egin, eta erreflexiorako terapia interesgarria

izan da". Arriskuez gain, kannabisak efektu sendagarria ere badauka: "Holandan, adibidez, farmazietan saltzen hasi dira, eta gauza horiek ezagutzea ere interesgarria da. Kontsumitzaileek kannabisari buruz dena dakitela uste dute askotan, baina beti jakin daiteke gehiago".




2005. urteko Gabonetarako amaituko dituzte Arregitorreko Babes Ofizialeko etxebizitzak

24 etxebizitza berri eraikiko dituzte, eta zozketa bidez banatuko dira

Hasi dira dagoeneko Arregitorre Hauxoko Babes Ofizialeko etxebizitzak egiten. Momentuz etxebizitzen oinarria egiten ari dira, baina laster hasiko dira eraikinak altxatzen, eta 2005. urteko Gabonak inguruan amaitzea espero dute. Guztira 24 etxebizitza eraikiko dituzte, eta Babes Ofizial pribatukoak izan arren, zozketa bidez banatuko dira, publikoen kasuan egin ohi den bezala. Zozketan parte hartu ahal izateko Eusko Jaurlaritzak ezarritako ezaugarriak bete beharko dira, eta etxebizitzen salneurria berak ipiniko du.

Babes Ofizialeko etxebizitza hauek Sukia enpresak eraikiko ditu. Honekin batera, salmenta libreko beste 99 etxebizitza eraikiko ditu enpresa berak gure herrian. 39 etxebizitza Marañon ingurunean, eta 60 Olaizaga Kiroldegiaren ondoan. Marañon inguruko etxebizitzak 2004. urteko irailerako



bizitzera sartzeko prest egongo dira, eta gainontzekoak 2005eko Gabonetarako.

Proiektu hau dela-eta, errepidean obrak egin beharko dira. San Raketik Kiroldegira doan bidea luzatu egingo dute

Basarte ingururaino, eta Marañon ingurunetik Kiroldegi inguruan egin behar dituzten etxe berrietara joateko eskailera mekanikoak egitea aurreikusten da.

Ginekologo baten baja dela-eta, Mendaroko Ospitaleak urgentziak eta erditzeak soilik atendituko ditu



Mendaroko Ospitaleak 7 ginekologo ditu bere zerbitzua betetzeko, eta azkenaldian bi bajaran egon dira. Horieta bat hasi da dagoeneko lanean, baina bestea luzerako dela azaldu digu Gorka Sarasola Mendaroko Ospitaleko gerenteak. Esan digunez, ordezeko ginekologo bat bilatzen saiatu dira, baina ez dute inor aurkitu. Ondorioz, ohiko azterketa ginekologikoak bertan behera utzi, eta arazoa konpondu arte, urgentziak eta erditzeak soilik atendituko dituzte.

Elgoibarren ginekologiako bi kontsulta izaten dira, baina baja hau dela-eta, orain bakarra dago. Sarasolak ezin izan digu esan noiz arte jarraituko duten egoera honetan, baina ahalik eta azkarren

konpontzen saiatuko direla ziurtatu digu. Hala ere, norbaitek ginekologoarengana joateko beharra baldin badauka, Mendaroko larrialdietan atendituko dute.

Mendaroko Ospitaleak Debarreneneko eskualde osoari eskaintzen dio ginekologia zerbitzua. Urtean 21.000 kontsulta egiten dira, 600 erditze, 3.000 ekografia eta /700 larrialdi. Sarasolak esan gunez, daukaten pertsonalarekin zail da eskari horri aurre egitea. Zenb it herritan ginekologia zerbitzua h ditzea eskatu dute, baina hori ez dela Posible esan digu Sarasolak: "5.000 biztanleko ginekologo bat dago herri bakoitzean, eta momentuz ezin da gehiago jarri".

392.15154 euroko aurrekontua izango dute Urasandiko eskailera mekanikoen azken bi zatiek

Urte amaierarako obrak hasteko moduan izatea espero du Udalak



Urasandiko eskailera mekanikoen proiektua bukatzeko azken bi zatia falta dira, hau da, harategitik haur eskola dagoen tokiraino jarriko dituzte eskailera mekanikoak. Obra honek 392.156,54 euroko aurrekontua izango du, eta Elgoibarko Udalak lehiaketa bidez aukeratuko du proiektuaren egilea. Lehiaketan parte hartu nahi duten enpresek hilabete honen

amaierarako aurkeztu beharko dute beraien proposamena, beraz, urte amaierarako obrak hasteko moduan egongo dira.


Eskailera mekanikoen azken bi zati hauek jartzen dituztenean, 6 zati desberdin egongo dira Urasandi auzoan, eta King-Kong-eko zubia amaitzen den lekutik auzoko puntu goreneraino igotzeko aukera eskainiko dute.

Udalak bere web orria berri du

Elgoibarko Udalak erabat berri du bere web orriaren diseinua, eta gune berriak prestatu ditu kultura, euskara eta kiroltako gaiak jasotzeko.

Web orri hori asteazkenetik dago ikusgai www.elgoibar.org helbidean. Berrikuntzarik garrantzitsuen albistei dagokien atala da. Atal horretan, Udalaren sailetatik datozen albisteen berri izateko aukera egongo da. Albiste horiek, gainera, astero-astero berrituko dira. Horretaz gain, hainbat sail gehitu zaizkio aurreko web orriari, herritarrek nahi duten informazioa ahalik eta errazen aurki dezaten.

Web orriaren arduradunen esanetan "aurreko web orria zeharo zaharkituta zegoen, eta horregatik egin da erabateko aldaketa hori. Estetikoki web orri berriak ez du zerikusirik aurrekoarekin. Orri



funtzionalago bat egiteko ahalegina egin da, edukiak errazago aurkitu ahal izateko".

Bestalde, web orriari jaso ez diren herriko elkarte eta erakundeek, edo emandako informazioa aldatu nahi dutenek, Udaleko Kultura Sailarekin jarri ahal izango dira harremanetan (943 74 21 58), edo bestela, mezu elektronikoko bat bidali harremanak@elgoibar.org helbidera.

Debegesak enpresa berriak sorlizeko plana jarri du martxan

Deba Beheko Garapen Ekonomikorako Elkarteak (Debegesa) oinarritzko formazio kurtso berria antolatu du, euren enpresa edo negozioa sortu nahi duten langabetuei zuzenduta. Helburu nagusia, sortu nahi duten enpresa horren aukerak ikertzeko jakin beharreko guztia irakastea da, gero enpresa berri horren gestioa eramateko gauza izan daitezten. Kurtso hau, eskualdeko gizon eta emakumeentzat zuzendurikoa da. Kurtsoa azaroaren 17an hasiko da, eta 54 orduko iraupena izango du. Ikastaro honetan enpresaren sormena, marketinga eta gestio komertziala, analisi ekonomikoa eta giza errekurtsoen gestioa landuko dira, besteak beste.

Debegesak eskualdeko 8 Udaletxeekin batera, Europako Fondo Sozialaren eta Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Segurtasun Sozial Sailaren laguntzarekin antolatu du ikastaro hau. Kurtso honetan partehartzea dohainekoa da, guztiz subentzionatua dagoelako.

Interesatuak 943 820110 telefonora deitu dezakete, edota prestakuntza@debegesa.com helbide elektronikora idatzi.



Txakurrek beraien eginbeharrak egiteko tokia jarri dute Leku Eder parkean

"Pipi-can" inauguratu zuten joan zen asteazkenean, hilaren 5ean, Leku Eder parkean. Txakurrek beraien eginbeharrak egiteko lekua da. Arazo larria zegoen, izan ere, herriko bazterrek zikintzen baitzituzten. Arazo honi irtenbidea eman nahian jarri du Udalak "pipi-can" delakoa, eta aurrerantzean toki hauek errespetatzen ez dituen txakurraren jabeak isun gogorrak jarriko zaizkio. Momentuz Leku Ederreko parkean jarri dute, baina gerora, herriko auzoetara ere zabaltzeko asmoa daukate.

DROGEN INGURUKO EDOZEIN ZALANTZA ARGITZEKO ZERBITZUA JARRI DU MARTXAN ERROTATXO ELKARTEAK

EZAGUTZEN AL DUZU DROGEN MUNDUA?



CARLOS DOMINGUEZ
39 urte, instalatzailea

Nik bai, informazio nahikoa daukat. Gertuko esperientziak izan ditut, eta ondo ezagutzen dut mundu hau. Lehen ez zegoen informaziorik eta jendeak non sartzen den jakin dezan beharrezkoa da.

JONATHAN BLAZQUEZ
18 urte, ikaslea

Kalian ikusten dana dakit. Informazio gehixo euki leike, eta gaztientzako oso ondo dao zerbitzu hori. Alkohol asko kontsumitzen da, eta gazte askori ondo etorriko zaio informaziva.



LURDES BENEITEZ
44 urte, komertzio arduraduna

Informazioa badaukat, baina beti jakin daiteke gehiago. Horrelako zerbitzu bat jartzea oso garrantzitsua da, droga berri asko dago, eta informazioa berritua eskaini behar zaio jendeari.

AMAIA URANGA
41 urte, etxekoandrea

Informaziva badaukagu, baina beti bihar dogu gehixo jakitzia. Zenbat eta gehixo jakin, hobe. Gainera seme gaztiak dauzkagunok gai honekin kezkatuta gaude, eta holako zerbitzua egotia interesgarria da.



JESUS AJURIA
46 urte, langabetua

Ez, gai horretan oso galduta naio. Sekula ez dot biharrik euki, ez da nere preokupazioetan sartzen drogia. Baina, informazio biharrian dauan jendiantzako oso ondo dao zerbitzu hori.

NEREA LENDINEZ
19 urte, ikaslea


Informaziva euki arren, drogen inguruan beti daoz zalantzak. Gaztiak ez dakate informazio nahikua. Jende asko informaziorik gabe dabil mundu horretan. Zerbitzu hau oso interesantia iruditzen jata.





MEKAN9@.17
Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- * IDAZMAKINEN SALMENTA
- ETA KONPONKETA
- * MULTIKOPISTAK
- * FOTOKOPIADORAK
- * PLANOEN BIRREGILEAK
- * ERLOJU INDUSTRIALAK
- * MARRAZKETA MATERIALA
- * INFORMATIKA
- * FAX



Malape taberna
Orain astegunetan
San Frantzisko, 60

Pilar Ikastetxeak eta Herri Institutuak "Klik eta Klik" lehiaketa birtualaren lehen edizioan hartuko dute parte

Azaroko lehenengo astean Gipuzkoako 21 ikastetxeetan jarriko da martxan "Klik eta Klik". Guztira, 12 eta 15 urte bitarteko, 500 partaide arituko dira jokoan, %92ak euskaraz hartuko du parte. Hauen artean, Pilar ikastetxea eta Elgoibarko Herri Institutua ditugu. Partehartzaileak internet bidez lehiatuko dira.

Tresna didaktiko hau bere osotasunean Digital Vasca S.A. enpresak sortu eta eratu du, eta lehenengo edizio honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentuaren laguntza izango du. "Klik eta Klik"-en helburu nagusienetako bat erronka honetan parte hartzen duten gazteei, gaztaro eta helduaroan ezinbestekoak diren balio unibertsal batzuk igortzea da.



Nahiz eta "Klik eta Klik" lehiaketa moduan aurkeztu, adierazitako balio pedagogikoek gordeko dute lehen planoan. Klik eta Klik 2003ko azaroan hasi eta 2004ko apirilean amaituko da. Partaideei puntuazioa emateko garaian hurrengo irizpideak hartuko dira kontutan: azkartasuna, partaidetza maila, erantzunen kalitatea, originaltasuna, sormena, eta lan egiteko gaitasuna.

Txiletar zuzendarien prestakuntza IMHn

Txileko Hezkuntza Ministerioak eskatuta, herrialde honetako Lanbide Heziketa Ikastetxe ezberdinetako 21 zuzendari formatzen ari dira Contes-Makina Erremintaren Institutuan. Talde hau, IMHra datorren laugarrena da. Joan den urriaren 27tik, zuzendari talde honek "Helduen Heziketa" ikastaroa egiten dihardu. Txileko Hezkuntza Ministerioak bere herrialdeko Lanbide Heziketaren erreforma egiten ari da eta horretarako, ekintza ezberdinen artean, ikastetxeetako zuzendarientzako

atzerriko egonaldiak antol atzen ditu, prestakuntza kualifikatu aurreratua har dezaten.



GAZ-T Aisialdi Taldeak "Laburmetraia egiten" ikastaroa antolatu du

Elgoibarko GAZ-T Aisialdi Taldeak DBH 1 etik DBH4ra arteko gazteentzako "Laburmetraia egiten" ikastaroa antolatu du. Sebastopoleko titiriteroek emango dute ikastaroa, eta orokorrean laburmetraia bat egiteko prozesu osoa azalduko dute modu teoriko-praktikoan. Edukiari dagokionez, ikastaroak hiru zati nagusi ditu:

- 1.- Kasting baten bitartez zinemako ofizio guztiak ikasten dira (aktore, zuzendari, kamara...).
- 2.- Gidoilartzaren azterketa (denon artean gidoi bat ikasiko da).
- 3.- Gidoiaren grabaketa.

Ikastaroa bi larunbatetan gauzatuko da, azaroaren 22an eta 29an, goizeko 10:00etatik 14:00etara Kultur Etxean. Ikastaroak 20 euroko prezioa izango du. Interesatuak Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen (943 74 16 26) eman dezakete izena, azaroaren 10etik 14ra bitartean. Jakinarazi digutenez, plazak mugatuak dira, eta matrikulazio ordena errespetatuko da.

ESKOLA KIROLA

EMAITZAK

1. Jardunaldia

FUTBOLA, Minlxetan

- **Infantil mutilak** ■
BHI A 6 - Ikastola B 4
BHI B 8 - Ikastola A 0
Pilar A 8 - Pilar B 11
- **Infantil neskak** ■
Pilar A 4 - Ikastola B 2
Pilar B 5 - Ikastola A 0

ESKUBALOIA, Kiroldegian

■ Benjaminaka

Pilar A 1- Pilar C 1

- Ikastola B 0 - Mendaro B 2
- Ikastola D 0 Herri Eskola C 2
- Ikastola C 1- Herri Eskola B 1
- Pilar B 0 - Herri Eskola A 2
- Ikastola A 1- Mendaro A 1

SASKIBALOIA, Herri Eskolan

■ Alehin mutilak

- Mendaro A 33 - Herri Eskola A 12
- Pilar A 6 - Ikastola B 30
- Pilar B 57 - Ikastola A 5

■ Alehin neskak

- Pilar A 0 - Ikastola C 73
- Pilar B 8 - Ikastola A 16

AGENDA

Urriak 25, 2. Jardunaldia

ESKUBALOIA, Kiroldegian

■ Benjaminak

- 9:00 Ikastola A- Ikastola C
- 9:30 Ikastola B- Ikastola D
- 10:00 Mendaro A- Pilar C
- 10:30 Mendaro B- Herri Eskola A
- 11:00 Herri Eskola B- Pilar A
- 11:30 Herri Eskola C- Pilar B

FUTBOLA, Minhtetan

■ Infantil mutilak

- 10:30 Ikastola B- Pilar B
- 11:15 Ikastola A- Pilar A
- 12:00 BHI A- BHI B

■ Infantil neskak

- 11:15 Ikastola B- Pilar B
- 12:00 BHI A- Pilar A

SASKIBALOIA, Herri Eskolan

■ Alehin mutilak

- 09:00 Herri Eskola A- Ikastola A
- 09:45 Ikastola B- Pilar B
- 10:30 Mendaro A- Pilar A
- **Alehin neskak** ■
- 11:15 Ikastola C- Pilar B
- 12:00 Herri Eskola A- Pilar A

URRIA

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira 943 74 41 12 telefonora edo bidali e-postaz barren@topagunea.com helbide elektronikora.

HILDAKOAK

Angel Fernandez,
80 urte, urriak 1

Eugenio Diego,
84 urte, urriak 1

Arantxa Etxaniz,
62 urte, urriak 9

Antonia Laka,
79 urte, urriak 14

Jose Maria Gil Cengotita,
77 urte, urriak 14

Fabian Moreno,
85 urte, urriak 16

Luis Mari Barrenetxea,
61 urte, urriak 19

Itziar Aizpitarte,
52 urte, urriak 26

Jose Martin Gorrotxategi,
53 urte, urriak 27

F1KONTZAK

Joaquin Plaza eta Alaitz Lizarralde
Urriak 11

Oscar Rubio eta Juana Vergara
Urriak 11

J. A. Fernandez eta Beatriz Gonzalez
Urriak 18

Joseba Iriondo eta Idoia Osoro
Urriak 18

JAIOTAKOAK



Enara Juaristi
Camarzana
Irailak 29
Aitor eta Emma




Irati Conde
Uriarte
Urriak 14
Francisco eta
Alazne

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua

OSOA eta 24 ORDUKOA

KUTXAK • TRASLADOAK • KOROAK



NORBANAKOEI
eta KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak.

Donostia eta
probintziako
erietxe zentroetan
ere bai.

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56

(Mobila) 608 77 07 01

Elkarrizketa



200
G E H I G A R R I A
H I L L E K O E L K A R R I Z K E T A · 200


JAVIER GALDOS ERDI TXANTXIKU, ERDI ELGOIBARTAR SENTITZEN DA. DUELA 70 URTE OÑATIN JAIO ZEN, BAINA 22 URTE ZITUENETIK ELGOIBARREN BIZI DA. GAZTETAN FUTBOLEAN JOKATU ZUEN ARREN, ESKU PILOTA IZAN DU ZALETASUNIK HANDIENA GIZON HONEK. PENTSA, 40 URTEZ GIPUZKOAKO PILOTA FEDERAZIOAREN ELGOIBARKO DELEGATUA ETA BALTASAR PILOTA ELKARTEKO KIDEA IZAN DA. HERRIKO PILOTARI GAZTEAK TXAPELKETETARA ERAMATEA, PARTIDUAK ANTOLATZEA ETA SAILKAPENAK EGUNERATZEA IZAN DA BERE LANA.



Javier Galdos

"GIPUZKOAKO PILOTA FEDERAZIOKO ELGOIBARKO DELEGATUA IZAN NAIZ IA 40 URTEZ"

PILOTARI ON GUZTIAK PASA DIRA ELGOIBARTIK, PILOTAREN HISTORIAN ZERBAIT IZAN DIREN GUZTIAK BEDEREN: BARBERITO, OGUETA, RETEGUI, GALLASTEGUI... HAMAIKA PILOTARI PROFESIONAL ETA AMATEUR EZAGUTU DITU JAVIER GALDOSEK ETA BAITA MOTA GUZTIETAKO PARTIDUAK IKUSI ERE. AZKENALDIAN PILOTARI ELGOIBARTARRIK ATERA EZ BADA ERE, HERRI PILOTAZALEA IZAN DELA ELGOIBAR AITORTU DIGU ETA MAKINA BAT DIRA BERTAN SORTUTAKO PILOTARIAK. HAUETAZ ETA PILOTA MUNDUAZ BERBA EGIN DUGU.



Javier Galdos

"San Lorentzo izan

Oñatin jaioa zara. Nolatan iritsi zinen Elgoibarrera? Soldaduzkia ein naban Gasteizen 22 urterekin eta handik Elgoibarrera etorri nintzan familixiak. Tabernia zakan familixiak Oñatin, baina ama osasunez kaskar zabilenez, tabernia itxi eta honantz etortzia erabaki gendun. Osaba batek, Realeko Astiazaran presidentian aitxitzak, Estartan eitzen zaban lan eta haren bitxartez etorri ginan. Aitxa al-mazenian hasi zan lanian eta ni delineante moduan.

Pilotazalea izan zara betidanik, baina jokatu al zenuen pilotan?

Oso gutxi, jokatzia baino ikustia gustau izan jata. Sekula ez dot abilidadarik euki eta eskuak ere ahulegixak nauzkan. Futbolian jokatzin naban. "Irrintzi" taldian Oñatin eta "Flejia" taldian jokatu naban Elgoibarren, gero "Elgoibar txiki" moduan ezagunaua.

Elgoibarrera etorri zinenean non jokatzin zuten herritarrek pilotan?

Plaza Handiko frontoian jokatzin gendun eta eurixa eitzen zabanian San Lorentzora edo Sigmako frontoira juten ginan.

I Pilotari asko elkartzen al zen Plazan?

Bai, jende mordua. Eta eurixa bazan kontsejupe edo udaletxe azpitan jokatzin gendun. Azkoitxiko arkupiak gertatzin zan moduan abilitade handiko pilotarixak atera zian: Fermin Ruiz de Gauna eta Fructuoso Arrien "Pope" esaterako, artistak zian aurreko koadrotan eta profesioletara ailegau zian.

I San Lorentzoz ere afizio handia egongo zen, ezta?

Bai, izugarria. San Lorentzo izan da Elgoibarko pilotarixen fabrikia, pilotari gehixen eman ditzuan bailaria: Txurruka, Arriola, Artazo, Badiola, Alonso, Leiaristi, Gabilondo anaiak, Bollar, Mendikute...

Nolakoak ziren garaiko pilotak?

Harizko edo trapuzko pilota traketsekin jokatzin gendun Plaza Handixan. Ganorazko pilotekin jokatu nahi izanez gero, Gerardo Arriola "Barateruari" alokatu bihar izaten jakozin. Pilotari profesionala izandakua, Plaza Handiko ertz batian bizi zan eta atarixan eukitzin zitxuan pilotak eguzkitxan gozatzin. Erabilitxako denboran arabera kobratzin zaban.

Pilota asko jauziko ziren Deba ibaira, ezta?

Bai, horixe! "Barateruak" errekatik pilotak berreskuratzeko egurrezko txanela zakan eta makila handi batekin eitzen zion bultza, Veneziako gondoleruen moduan. Mutil indartsuek jokatzin zabanian "Baraterua" dardarka hasten zan. Batzutan nahitxa botatzin zitxuen pilotak erreka-gustuko pilota ez bazan. Mila anekdota daude. Eibarko Aldazabal pilotarixak esaterako, frontis gaintik bota zaban pelotia, ibaixa eta kaminua pasau eta bestaldeko autobus paradia jo zaban.

"a Elgoibarko pilotarixen fabrikia"



"POSTURETAN IGARRI LEIKE PILOTARIXA DATORREN EDO EZ"

I Aposturik egiten al zen?

Bai, era guztixetakuak. "Txitxan" izeneko bi anai nafar apustu zaliak zian oso. Morroi lanian jarduteko etorri zian Elgoibarrera eta oso ondo eitxen zaben pilotan, bixetako bat profesionalekin jokatzera ailegau zan. Bigarren mailako txapeldunorde izan zan. Apostua jokatzen zaben bakoitzian segiduan betetzen zan plazia eta girua sortzen zaben. Beti desafivak botatzen ibiltzeko ohituria zaken.

/ Inoiz ikusi duzun pilotaririk onena?

Barberito eta Ogeta ikusgarriak zian oso. Ogeta laugarren koadrotik sartzen zan ezker airez eta indar biziz. Binaka Pierola artista bat zan eta Gallastegi, berriz, oso jotzailia ezker eskubi. Eta Retegui II, noski! Danetan handixena, bai banaka eta bai lau ta erdixan.

Eta ezagutu dituzun pilotari elgoibartarrik onenak?

Manomanuan Arriola IV. Bi esku bizi zitxuan eta plaza mutila zan. Binaka, berriz, Sabin Txurruka aurrelari edarra zuan ikusteko. Ezker aire zoragarrixa zaukan. Afizionatuetan punta-puntan ibili zan makina bat txapelketa irabaziz. Txurrukan aldian pelotari eskaxak sartu izan dia profesionaletara. Lau ta erdixan barruan ere maisua zan. Behin Tapia Ien aurka irabazi zaban finalaurrekua Azkoitixan. Manomanoko finala jokautakua da Tapia I eta hankan min hartu zabalako galdu zaban. Finalian faboritua zan Sabin, baina Tapian anai gaztian aurka galdu zaban.

Txapelketa asko irabazi al dituzte pilotari elgoibartarrek?

Oin txapelketa gehixo dao, baina lehen Debarroko Txapelketia zan inguruko garrantzitsuenetakua afizionatu mailan, Interpuebloekin batera. Baltasarreko pilotarixek paper ona ein izan dabe eta 1948 eta 1992 bitartean 11 txapel irabazi genitxun senior mailan. Sabin Txurrukak guztixetan hartu du parte bikote ezberdinekin: Alonsokin lehenbizi, Leiaristi eta Mendikuterekin

ondoren eta Odriarekin, azkenik. 1956. urtian irabazi zaban lehen Debarroko Txapelketia eta 1979. urtian azkenengua. Harrezkero ez dogu berriz irabazi. 1987xan jubenil mailako txapelketia irabazi zaben Izagirre eta Etxanizek eta 1980 eta 81. urtietan infantil mailan irabazi gendun.

I Gaztetatik igarri al daiteke pilotaria datorren ala ez?

Bai, posturetari igartzen da batez ere pelotari sena daken edo ez. Batzuk oso libre, natural, jotzen dabe pilota gaztetatik.

/ Elgoibarko pilota delegatua izan zara urte askoan, ezta?

Bai, Gipuzkoako Pilota Federazioko Elgoibarko delegatua izan naiz makina bat urtean, ia 40 urtez. Elgoibarko pilota kontuen koordinatzailea izan, lizentziak tramitau, partiduak antolatu, emaitzak jaso, sailkapenak eguneratu, e.a. izan da nire lana.

I Jarraitzen al duzu egungo pilota?

Bai. Olaizola gaztia, Aimar, gusutzen jata. Bera da azken urtietan atera dan pilotaririk onena.



Pilotan jokatzeko modua asko aldatu al da?

Oin gehixo jokatzen da airez eta edozein atzelarik ondo menperatzen dau. Lehen zaila-
laua zan holakorik ikustia. Pilotak astunauak eta motelauak zian eta zaila-
laua zan buruz gain pasatzia. Titin edo Capellan modukuak tartian ez badaude aurrelarixak jokuan sartu ezinda ibiltzen dia batzutan.

Eta ikusleak, asko aldatu al dira?

Gaur egun frontoietan jende nagusixa baka-
rrik ikusten da. Lehen gainera, frontoi gitxio zauden eta partidu askoz gitxio jokatzen zian. Bergara, Eibar, Tolosa eta Donostiako Grosen jokatzen zian partiduak, baina oin ia herri guztixek dake ganorazko frontoi bana.



Askotan errepikatu den irudia, Javier Galdos pilotariei saria entaten.



Jose Mari Mendikute (ezkerretik lehena) eta Sabin Txurruka (eskuinetik bigarrena) otnendu zituzten 1976an. Beraiekin batera Juan Ignacio Retegi "Retegi I" eta Javier Galdos.



1979ko argazkia. Goian ezkerretik: Sabin Txurruka, Mendikute, J. Galdos, Augusto Artamendi, Jose Bollar. Behean: JM. Agirrebeña, J.M. Leiaristi, "Amoroto" eta "Otsua".

Desteen ahotan



Pa ko Mugerza

da Javier Galdos ezagutzeko pertsonarik egokienetakoa, Elgoibarrera etorri zenetik ezagutzen baitu: "40 urte dia elkar ezagutzen dogula. Elgoibarrera etorri zanetik ezagutzen dot, gure koadrilan hartu baikenun eta bizi ere Santa Ana kalian bizi giñan bixok. Mutil jatorra zan orduan eta oraindik ere hala izaten jarraitzen du. Futbolian jokatzen gendun, baina pilota zan gure afiziva. 1958. urtian Baltasar Pilota Elkartia sortu zanian, pilota kontuak eruaten hasi ginan eta lan mordua ein dogu hainbat urtian. Javierren laguntzaile moduan ibiltzen nintzan ni. Inoiz jun ezina eukitzen bazaban neu juten nitzan bere orde. Akorduan dakat berdura plaza zaharretik jarlekuak hartu eta karruan gainian Plaza Handiko

frontoira eruaten genitxuanekua. Deskantsuan bandeja pasatzen gendun borondatia eskatuz eta partiduak amaitutakuan, jarleku guztixak batu bihar. Lagunak Pilota Eskola sortu zanian laga ein naban eta Javierrek ere pare bat urte gehixo ein zitxuan".

Elgoibarko pilotak garai hobeak bizi izan dituela uste du Pakok: "Kirol berrixen aurrian behera ein dau pilotak. Gaztiak ginanian txandia hartu bihar izaten zan frontoian jokatze. Bi tanto jokatu eta kanpora".

Farmazia - okindegia

EGUNEZ

7	Yudego
8	Ettxeberria (Santa Ana kalean)
9	Zabaleta
10	Ettxeberria (Errosario kalean)
11	Ibañez
12	Bidasolo
13	Ettxeberria (Santa Ana kalean)
14	Fernandez

GAUEZ

Yudego
Zabaleta
Zabaleta
Ettxeberria
Ibañez
Bidasolo
Ettxeberria
Fernandez

FARMAZIAK

ESCALA, Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38
FERNANDEZ,
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42
ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

9 **igandea** Eizagirre

Eusko ren

DONOSTIA-BILBO

Egunero			
Donostia,smak	5.45	06.45...	20.45
Elgoibar	07.02	08.02...	22.02
jaiegunetan 7. 5ean hasiko dira			

MENDARO-ELGOIBAR

Egunero			
Mendaro	07.50	08.50...	21.50

Eusko ren

NL TOBI S.HI

BILBO-DONOSTIA

Egunero			
Bilbo	06:00	7.00...	20.00
Elgoibar	07.23	08.23...	21.23
jaiegunetan 8.00etan hasiko dira			

ELGOIBAR-MENDARO

Astegunetan				
Elgoibar	07.25	08.25	10.25...	21.25
Jaiegunetan				
Elgoibar	08.25	09.25	10.25...	21.25

ELGOIBAR

siunm • ARRIAGA

SIGMA	ARRTAGA	ARRIAGA	SIGMA
8:00	8:10	8:10	8:20
9:25	9:35	9:55	10:05
11:10	11:40	11:10	11:20
11:20	11:50	11:40	11:50
12:10	12:40	12:10	12:20
12:20	12:30	12:40	12:50
13:10	13:20	13:10	13:20
13:20	13:30	18:10	18:20
18:20	18:30	19:00	19:10
19:10	19:20		

INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulatorioa	943 03 26 10
Planning-a	943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85
D Y A (anbulantzia)	943 46 46 22
G u rutze Gorria	943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00
Odol Emaileak	943 74 39 36

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 74 04 42
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	943 74 08 98

UDALA

Euskara Zerbitzua	943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua	943 74 44 15
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58
Mendaroko Udala	943 75 61 00
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08
Udaletxea	943 74 10 50
Udaltzaingoa	943 74 13 94

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Kiroldegia	943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
Liburutegia	943 74 35 25
Musika Eskola	943 74 21 45
Mintxeta	943 74 43 15
Parrokia	943 74 08 42
Postetxea	943 74 15 47
Gaztetxea	943 74 35 72
Gazte Informazioa	943 74 14 61

ADINEKOEN ETXEA

San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Eguneko Zentroa	943 74 45 65

IKASTETXEA

Haur Eskola	943 74 21 41
HHI (EPA)	943 74 08 80
Herri Eskola	943 74 08 79
I M H	943 74 41 32
Insitutua	

Arreiturre	943 74 80 19
Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
Ikastola	943 74 44 41
Pilar Ikastetxea	943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN	943 74 41 12
El Diario Vasco	943 74 40 73
El Correo Español	943 74 10 82
Zazpiki irratia	943 74 34 74
Egunkaria	943 30 02 28
Gara	943 31 69 99

Haizea Emakume Taldeak antolaizen dituen hainbat ekintza prestatzeaz arduratzen da Eskarne Larrinaga, pertsonaren garapena lantzeko ikastaroaz, Bideo "Forum-az... Pedagogia ikasi du bizkaitar honek eta karreraren azken urteetan sexologiaren adarra hartu zuen. Momentua bizi behar dela irakasten omen du Eskarne. Ikus dezagun zertaz dijoan bere lana.

"Momentua bizi behar da, iragana atzean utziz eta etorkizunaz gehiegi pentsatu gabe"



ESKARNE LARRINAGA

- **Pertsonaren garapena lantzeko ikastaro bat ematen duzu, zertaz dijoa?**

Emakumea barrutik hobeto sentitzen laguntzen du ikastaroak, errudun senti ez dadin. Emakumearen kalitateak edo nolakotasunak lantzen ditugu norbere buruarekin hobeto egoteko. Bikote erlazioak ere lantzen ditugu. Zentratuta egoteko zer egin behar den irakasten ere saiatuko gara, lortzeko beharrezkoak diren estrategiak azalduz. Psikologo eta adituek 9 izakera edo pertsonalitate mota ezberdintzen dituzte eta guk bakoitzari dagokiona topatzen ahalegina egingo dugu. Ikastaroa didaktikoa izateaz gain, entretenigarria izango da.

- **Zergatik emakumeentzat bakarrik?**

Gizonezkoak ez dute horrelako ikastaroetan parte hartzen, etorkizunean ikastaro hauek mistoak izango dira, baina emakumeak asko lotsatzen dira gizonezkoen aurrean gaur egun, isil-isilik geratzen dira. Ariketa batzuk emakumeei zuzenduta daude eta ez zen berdina izango gizonezkoekin. Zenbait ariketa bi ikuspuntuetatik ikustea interesgarria da baina ikastaroa emakumeentzat prestatua dago.

- **Nolakoa izaten da Elgoibarko emakumeen erantzuna?**

Haizea Emakume Taldeak antolatzen duenez, taldea egina dago. Hau da, ez da publizitaterik egin behar jendea erakartzeko, horrek asko laguntzen du. Hala ere, beti sartzen da emakume berriren bat eta taldean integratzen saiatzen gara.

- **Zeintzuk dira norbera hobeto sentitzeko klabeak?**

Egiten diren baino gauza gutxiago egin behar dira. Gainera lasaitasunez hartu behar da bizitza, guztia ondo pentsatuz eta gauzak gaizki ateratzen badira errudun sentitu gabe. Momentua bizi behar da, iragana atzean utziz eta etorkizunaz gehiegi pentsatu gabe. Eta batez ere askotan amasa

hartu. Bizitzak sortzen dituen aldaketetara egokitu behar gara, noraezean geratu gabe.

- **Bideo-forum-a prestatzea ere zure lana da. Zeren araberak aukeratzen dira pelikulak?**

Batez ere mezuren bat duten pelikulak ikusten ditugu, zerbait esan nahi dutenak, erreflexio bat sortzen dutenak. Emakumeak protagonista izan ohi dira eta normalean ez dira filme komertzialak izaten.

- **Nolakoa izaten da Bideo-Forumeko gau bat?**

Hilean behin elkartzen gara pelikula ikustera, gaueko 22:00tan eta pelikula bukatu ondoren filmearen komentarioa egiten dugu, 1:00etan bukatzen da normalean. Askotan gehiegi fijatu ez garen gaiak ateratzen dira eta erreflexio moduko bat egiten dugu. Norberak bere iritzia eman dezake, pelikulako gai bati buruz bere egotera pertsonala, arazoren bat... edozertaz hitz egin daiteke.

- **Etorkizunerako ikastaroren bat prestatzen ari al zara?**

Momentuz ikastaro honekin jarraituko dugu, baina aurrera begira emakumearen sexualitateari buruzko ikastaroa egitea pentsatua daukat. Jende aldetik ez litzateke arazorik egongo, 15 emakume prest baitaude.

- **Zer aholkatuko zenioke ikastarora joaten ez den emakume bati?**

Arazoa sortu aurretik horrelako ikastaroetara joatea gomendagarria dela, ez dela pentsatu behar arazoak dituzten emakumeak bakarrik dijoazela. Ondo dauden emakumeak animatuko nituzke etortzera. Bizitzako une zailak iristen direnean, aldeztu aurretik prestatuta egoteko modua aurki dezakete hemen. Arazoei aurre egiteko metodologia bat eskaintzen diegu, bizitzaren kolpeak xamurtzeko modua, alegia. Autoestima igotzen eta autokontrola lantzen ere laguntzen dute ikastaroek beste gauza askoren artean.

2003-2004 EsI

Sanlo Eskubaloi K

PAGOAGA ELG (Kadete neskek)



Tente, ezkerretik eskumara:

Igor Lizarralde (entrenatzailea), Ainhoa Dorado, Oihana Perez, Sara Perez, Esther Bilbatua, Irati Bollar, Sandra Montes, Miren Mugerza, Maider Gomez, Arianne Peñaranda (entrenatzailea).

Makurtuta, ezkerretik hasita:

Maialen Arnedo, Idoia Ginea, Itsaso Lopez, Itsaso Aguacil, Leire Garate, Mireia Jauregi, Danele Sarriugarte eta Lara Urain

PNEUMAX (Jubenil mutilak)



Tente, ezkerretik eskumara:

Mikel Sastre, Cirilo Sanchez (delegatua), Iker Rodriguez, Luis Mari Leon, Aitzol Urain, Mikel Aristi, Aitor Gonzalez, Daniel Sarraga (entrenatzailea).

Eserita, ezkerretik eskumara:

Antton Alberdi, Jokin Zubiaurre, Ander Gerenabarrena, Ion Sanchez, Iñaki Iglesias, Asier Cordon eta Oscar Martinez

Argazkian falta da: Joanes Rodriguez.

EMAITZAK

Futbola

Haundi 3 - Urola 0 (Pref.)
Orioko 0 - Elgoibar 1 (1.erreg.)
Elgoibar 2 - Ilintxa 1 (Neskak)
Dungoa 3 - Elgoibar 1 (Jub.)
Pedrusko 3 - Ostadar 0 (1.erreg.)
Urki 1- Elgoibar 4 (Neskak F8)

Esku pilota

Gipuzkoako Dcapelketa
Bergara 22 - lagunak A 21 (Nag.)
Lagunak B 22 - Eibar 3 (Nag.)
Lagunak B 16 - Ozkarbi 22 (Kad.)
Erniope 22 - Lagunak A 7 (Kad.)

Eskubaloia

Urdaibai 5- Pagoaga Elg. 27 (Kad. nesk.)
Tecnomeca Elg. 16 - Urduliz 18 (Kad. mut.)
Urdaibai 23 - Cometel Elg. 20 (Jub. nesk.)
Pneumax Elg.19 Urduliz 27 (Jub. mut.)
Sanlo Elg. 32 - Ereintza 24 (Sen mut.)
Zarautz 18 - Tecnifuelle Elg.17 (Sen. mut.)

Areto Futbola

USZ Coop. 4 - Kenci Elg. 2 (Nazional B)
Lanbroa 6 - Eraso 3 (2. maila)
Magefesa 3 - Berriotxo 3 (Jub.)

Morkaiko Mendizale Elkartearen ezohizko batzarra azaroaren 13an

Morkaiko Mendizale Elkartek ezohizko batzar orokorra ospatuko du azaroaren 13an, ostegunean, Kultur Etxean. Bertan, momentuko zuzendaritzak elkartearen inguruko gai nagusiak azalduko ditu ondorengo gai ordenarekin: **Egungo zuzendaritzaren dimisioa eta zuzendaritza berriaren aurkezpena.** Bozketa eta zuzendaritza berriaren onarpena (hala balegokio). Zuzendaritza berrirako aurkeztailerik ez balego, dimisio ondorengo elkartearen funtzionamendu minimoan beteko diren funtzioak eta galdera eta eskaerak. Morkaikoko arduradunek bazkideei agertzeko deialdia egin nahi diete, gai garrantzitsuak bozkatu behar baitira batzar orokorrean, zuzendaritza berriarena kasu.

ubaloi denboraldia

)eko taldeen aurkezpena

SANLO ELGOIBAR -



Tente, ezkerretik eskumara:

Ion Agirregomezkorta, Andoitz Agirregomezkorta, Aitor Dorado, Andoni Armendia, Aitor Rosario, Asier Ajuriagerra, Josu Perea eta Jose Perea.

Makurtuta, ezkerretik eskumara:

Gorka Garaizabal, Ibon Oteiza, Haritz Arrieta, Iker Zubiaurre, Iñigo Altuna, Oscar Gomez eta Jonathan Martin.

Argazkian falta da: Ian Alvarez.

TECNOMECA ELGOIBAR (Kadete mutilak)



Tente, ezkerretik eskumara:

Joseba Sagasta (entrenatzailea), Ekain Jimenez, Asier Goikoetxea, Jon Larrafiaga, Endika Astigarraga, Xabi Vasquez, Kimetz Iturrino, Adrian Romero, Lander Azpiazua eta Egoitz Ansola.

Eserita, ezkerretik eskumara:

Koldo Aldalur, Aitor Garcia, Aitor Hernandez, Alberto Fernandez, Oier Etxaniz, Jon Ander Cerron, Ion Iñiguez eta Mikel Galarza.

Kirol Patronatuak deialdia egiten die herriko kirol elkarteei dirulaguntza eskaerak egiteko

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak herriko kirol klubei jakinarazten die 2003 urteko dirulaguntzen banaketa egin ahal izateko klub guztiek denboraldiko txostenak azaroaren 15a baino lehenago aurkeztu beharko dituztela Olaizaga Kiroldegian. Gogorarazten die "dirulaguntzen araudian" kontutan bete beharko diren eta aurkeztu beharreko irizpideak hurrengo hauek direla:

- 1.- Eskola Kirola programari eskainitako laguntza
- 2.- Udal Kirol Patronatuko abonatuak diren zuen taldekideen zerrenda
- 3.- Lizentzia federatiboen zerrenda
- 4.- Talde kopurua eta bakoitzaren maila (Lurraldekoa, Autonomikoa edo Estatu Mailakoa)
- 5.- Entrenatzaileen kopurua eta bakoitzaren titulazioa
- 6.- Kirolarien kompetizio maila (txapeldunak eta selekzionatuak)
- 7.- Udal Kirol Patronatuari eskainitako laguntza
- 8.- Gurean Bai programan parte hartzea
- 9.- Diru sarreren eta gastuen urteko aurrekontua

AGENDA

Areto futbola, Kiroldegian

Zapatua, 8

16:00 Kenci Elg. — Ceramicas Nogales (Nazional B)

Esku Pilota, Ikastolan

Barixakua, 7

22:00 Lagunak B — Murumendi (Kad.)

Eskubaloia, Kiroldegian

Zapatua, 8

17:30 Tecnifuelle Elg. — Ereintza (Sen. mut.)

Domekia, 9

11:00 Tecnomeca Elg. — Gaztelueta (Kad. mut.)

12:30 Pneumax Elg. — Gaztelueta (Jub. mut.)



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

Debagariko enpresak optikoa behar du. Erref. 109587/2

Debabarreneko enpresak pasteletoa behar du. Erref. 109627/2

Durangoaldeko enpresak elektrizista behar du. Erref. 110756/3

Debagoienerako enpresak elektronikoa behar du. Erref. 111958/2

Durangoaldeko enpresak "conta plus" irakaslea behar du. Erref. 111869/1

Durangoaldeko enpresak soldadorea behar du. Erref. 112266/2

lurretako enpresak garbiketarako langilea behar du. Erref. 112392/1

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu 901222901 telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauek batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) 943 74 80 19 edo IMH (Nora RamOn) 943 74 41 32 telefonora.

Lana

ESKAERA

• Emakumea egun erdiz garbiketa lanak egiteko prest. 639 88 20 04

• Emakumea nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Asteburuetan ere bai. 626 91 49 04

• Emakumea garbiketa lanak egin, umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Orduka ere bai. 660 78 00 73

• Emakumea garbiketa lanak edo etxeko lanak egiteko prest. Egun solteak. tr 943 74 22 01

♦ Neska gaztea edozein lan egiteko prest. Umeak zaindu, eskolara eraman, garbiketa lanak... ar 680 68 20 82

• Neska gaztea edozein lan egiteko prest. Esperientzia umeak zaintzen. Tr 665 20 18 24

• Esperientziadun kamareroa tabernan edo kafetegian lan egiteko prest. Ordu-tegi flexiboa daukat. 943 74 46 34

Mutila buzoneo lanak egin edo publizitatea banatzeko prest. 678 212 800

• 36 urteko emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. a 943 03 08 45

• Emakumea garbiketa lanak egin, umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Tr 943 75 24 31 / 600 89 06 41

• Emakumea garbiketa lanak egin, umeak edo nagusiak zaintzeko prest. a 660 91 94 23

Emakumea orduka garbiketa lanak egiteko prest. Tr 686 10 85 52

• Emakumea orduka garbiketa lanak egiteko prest. tr 943 74 36 38

ESKAINITZA

♦ Asteazken zehar, gau ez tabernan lan egiteko pertsona behar da. Euskalduna eta esperientziaduna. tr 687 05 17 89

• Kamareroa behar da. a 943 74 42 65

Etxebizitzak

♦ Etxebizitza salgai San Antolinen. 5º ezk. 23. 943 74 22 05

♦ Pisua alokatzen da Deban ekainera arte. tr 943 74 13 39

• Etxebizitza salgai Santa Ana kalean. Sukaldea, 3 logela, komuna eta bi ganbara. a 665 70 30 24

• Pisua hartuko nuke alokairuan. Premiazkoa da. a 943 74 37 74 (Paki)

• Etxebizitza salgai Santa Ana kalean. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, igogailua, berogailua, bi balkoi eta ganbara. Tr 661 23 77 11

• Etxebizitza salgai San roke auzoan, Arregitorren. 90 m², 3 logela, sukaldea, saloia, bi komun eta bi balkoi. Trasteroa ganbaran. Guztiz berrieta eta kalitatezko muebleekin (aukeran). a 616 78 51 20 (arratsaldean deitu)

• Etxea salgai. Arregitorren egiten ari diren etxetako bat. 70m², dena kanpora begira. Tr 646 38 56 56

• Etxea salgai Santa Ana kalean. 3 logela, egongela, sukaldea eta despentsa. Eguzkitsua. 2r 636 22 31 42

Garajeak

*Garajea alokatzen da Leku Ederren. 3. solairuan. a 943 74 20 09

♦ Garajea alokatzen dut. tr 943 74 18 81

• Bi garaje itxi salgai kiroldegi ondoan. 2s. 626 60 71 55 (Marian)

• 3 kotxe sartzeko garaje itxia salgai kiroldegi aurrean. Tr 608 39 43 05

Lokalak

• 200m2ko lokala salgai San Lorentzen. Lur sailarekin. 23. 686 26 27 27

• Lokala alokatuko genduke Elgoibarren. Tr 636 91 07 06

Partikularrak

• DBHko eta LHko klase partikularrak ematen dira. a 616 26 20 13

• DBH 3. mailako klase partikularrak emateko pertsona behar da. z. 678 03 50 60

OHARRA:

Merkatu txi kirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdi ko 13:30a da.

Salerosketak

• Renault 19 1.4cc. salgai. Egoera oso onean. Itxiera zentralizatu eta leiho igogailu zentralizatuak. Ekonomikoa. It 646 16 04 80 (15:00etatik aurrera)

• Peugeot 205 gasolinazkoa salgai. Egoera oso onean. tr 943 74 32 94

• Ezkon soinekoa salgai konplemento guztiekin. Marfil kolorekoa. Udazken-nerurako egokia. Egoera onean. 646 37 59 14

♦ Opel Vectra DTI. 2.2 saport salgai. Txuria, 5 ate. 2002. urtekoa. Kapot elektrikoa, klimatizadorea, ordenadorea... urte beteko garantia. 17 616 26 62 12

• Egongelako altzariak salgai. Mahaia, 6 aulki, 2 aparadore baju. Marko doratuko ispilua opari. Tr 649 25 90 51

• W. Polo GT autoa salgai. Modernoa, 107.000 km. Gurpil berriak, ITVa 2004ko abuztura arte. 1000 euro. s:r 943 74 43 10

• Funtzionamendu oneko denda saldu edo traspasatzen da. tr 665 70 22 28

• Pentax P-30T Reflex argazki kamera salgai. 28-80mm objektiboa. Flash eta kamara zorroa opari. Prezio negoziagarria. tr 676 92 94 53 (21:00etatik aurrera)

• Techmics SL-1210 MK2 Mesa Eccler SMAC 42 pletina salgai. 50 disko opari. ts. 617 98 15 72

• Opel Astra salgai. Gasolina 1.600 G.L, 100 cv, 4 atekoa. 9 urte, egoera oso ona. 2.300 euro. tr 636 04 70 28 (Ane)

Bestelakoak

• Zapatuan, urriaren 25ean, Alcatel markako mobil txikia galdu nuen San Franzisko kalean. Grisa da. tr 943 03 35 01 (Eukene)

♦ Urrezko pultsera bat galdu nuen pasaden asteazken. Ane ipintzen du. n. 943 74 23 53

Elgoibarko Gazte Informazio Gunea
Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
Tel. 943 741 461

Ordutegia:
Astearte-ostiral: 16:00-20:00

Agurrak



*Zorionak Unairi, azaroaren 5ean, 3 urte bete zituelako. Familiako guztien eta bereziki, Sararen partez.



♦ Zorionak Pairicia, hilaren 6an, 20 urte bete zenituelako. Gurasoen eta lagunen partez.



♦ Kaixo rubial Ikusten duzun bezala ez gara zutaz ahaztu. Zorionak!



Zorionak aita, igandean urteak beteko dituzulako. Etxekoan, eta batez ere, Miren eta Maiteren partez.



♦ Zorionak Nerea Irustari, azaroaren 9an, 8 urte beteko dituelako. Etxekoan partez muxu handi bat.



♦ Zorionak Irati! Ziur gaude igandean, zure 6. urtebetetzean, egun polita izango duzula. Familiakoan eta, bereziki, Aitor, Ane, Unai, Maria eta Mikelen partez.



♦ Zorionak Jaki! Interneten sar-tzeko adina duzu, ia nun ibi-tzen zean. Familiakoan partez muxu handi bat.



♦ Zorionak Txindurri! 13kin eskubaloia ikusteko adina duzu, eta ez jokatzeko duten mutilak! Familiakoan partez.



♦ Zorionak Esmeralda eta Adrianari, azaroaren 6an eta 10ean zuen eguna delako. Muxu handi bana Arrillaga familiakoan partez.

BEKAK

Ikerketa-bekak

Jesus Gangoiti Barrera Fundazioak gai eta arlo ezberdinei buruzko ikasketak eta ikerketak egiteko bekak antolatu ditu goimailako unibertsitate tituludunentzako: ingeniari-tza, merkataritza, ekonomia, medikuntza, farmazia, biokimika eta musika. 7.500 euro beka bakoitzeko. Epea: azaroak 14

Praktikak

Espainiako Ekonomia Ministerioak Esportatzaileen Elkarteen egoitzan kanpo-merkataritzako praktikak egiteko 14 beka eskaintzen ditu. Beken iraupena 21 hilabetekoa izango da, 2004ko otsailean hasita. Hautaprobak 2004ko urtarrilaren lehen hamabostaldian egingo dira. 17.825 euro gordin urtean. Epea: azaroak 20

BIAMAROKAK

Enpresen sorkuntza

Debegesak enpresak sortzeko 54 orduko oinarritzko prestakuntza-ikastaroa antolatu du, Eibarren, negozio-idea bat duten pertsona langabeei zuzenduta. Epea: azaroak 17

Soldadura

SARTUK %100ean diruz lagundutako soldadura ikastaroa antolatu du, Donostian, iraupen luzeko pertsona langabeentzat. 475 ordu. 2003ko abenduaren 04tik 2004ko martxoaren 31ra arte, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 14:30etara. Epea: azaroak 21

LINIAKETAK

Ipuin laburrak

Euskadiko Gazteriarren Kontseiluak "elkartegintza eta partaidetza"

izeneko ipuin laburren I. lehiaketa antolatu du. Lehiaketan 18 urte edo gehiagoko edonork har dezake parte "greba elkartegintzan" gaiko 2 eta 8 orrialde bitarteko luzerako fikziozko ipuinak aurkeztuz. Ipuinak euskaraz zein gaztelaniaz aurkez daitezke, kategoria bakarra dagoelarik. 1.200 euro saritan. Epea: azaroak 24

Grabatua

Grabatu Garaikidearen Museoko Fundazioak Grabatuen X. Sari Nazionalak antolatu ditu. Lanak aurten egindakoak eta datatutakoak izango dira, arte grafikoaren sistema eta teknika tradizionalen eginak (kalkografia, xilografia, litografia edo serigrafia) eta beste teknika grafikoekin konbinatu ahal izango dira, prozedura digitalak barne. Artista bakoitzak paper gaineko 2 estampa aurkeztu ahal izango ditu. 9.900 euro saritan. Epea: azaroak 14

Zientziaren dibulgazioa

Beasaingo CAF enpresak eta Elhuyarrek CAF-Elhuyar X. Sariak antolatu dituzte zientziaren dibulgazioa sustatzeko helburuarekin. Bertara euskaraz idatziriko 4 eta 8 orri bitarteko dibulgazio-artikuluak aurkeztuko dira. Hiru sari nagusi, 25 urtetik beherakoan artikulu onenari sari berezia eta dibulgazio-liburu bat idatzeko 4.500 euroko beka. Epea: azaroak 15

LANA

Garbiketa langileak

Debabarrenako Mankomunitateak Eibarko garbiketaz-zerbitzu publikorako 4 langile espezialista kontratatatzeko deialdia egin du. Baldintzak: eskola-graduatu eta euskarako 1. hizkuntza-eskakizuna izatea. Epea: azaroak 21

Kamioi biltzaileen gidaria

Debabarrenako Mankomunitateak alboko kargako zaborien kamioi biltzaileen zerbitzuko ofizial gidari bat kontratatatzeko deialdia egin du. Baldintzak: eskola-graduatu, lehen mailako lanbide heziketa edo baliokide bat eta euskarako 2. hizkuntza-eskakizuna izatea. Epea: azaroak 21

GLOBALIZAZIOAREN AURKAKO JAIAL_C-1"

Azaroak 8
aze•etleaff

18:00 Aurkezpen hitzaldia

Ondoren, bideo emanaldia:
"Thessalonika-Junio 2003"

19:00 Antzerkia

Antzezlana: "la Puta en el manicomio"

Taldea: Imagina Oue No (Zaragoza)

21:00 Kontzertuak

Taldeak: "Blinded", "Inhalation Terror",
"Sinergia" eta "Likidillo"

7 BARIXAKUA

22:15 ANTZERKIA

Antzezlana: "Madre Amantisima"

Taldea: Avispa produkzioak

Herriko Antzokian




14 BARIXAKUA

19:00 "BEHIAK, TXAKURRAK ETA DEABRUAK" ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA

Egilea: Esperanza Zabala margolaria
Kultur Etxeko erakusketa gelan
Azaroaren 30a arte

ZINE
kluba



"Happy Times"

Zuzendaria: Zhang Yimou.

Antzeleak: Zhao Benshan, Dong Jie, Dong Lihua.

Gaur egun ikusmin eta mirespen gehien sorrarazten duen zinea da Zhang Yimou txinarrarena. Kulturen arteko ezberdintasunak gainditzen jakin du gizateria guztiari dagozkion gai klasikoei buruz hitz egiteko. Azken filme hau hiri handi batean girotua dago. Han eta hemen lantxoak eginaz bizirauten duen gizon ezkongabeko eta jubilatua da protagonista. Zhaok bereak eta bi ahalegin egingo ditu seme jasangaitz eta mimatu baten ama heldu eta gizenarekin ezkontzeko.

FERIAK

Gabon Zahar Feriarako deialdia

Elgoibarko Kultura Zerbitzuak, 2003ko abenduaren 27an ospatuko den Gabon Zahar Feriarako, bertako produktuak saltzeko postua jarri nahi dutenentzako epea abenduaren 18ra arte zabalik dagoela jakinarazi nahi du. Telefono zenbakia: 943 74 21 58. fax zenbakia: 943 74 41 61.

LEHIAKETAK

Argazki lehiaketa

Topaguneak (Euskara Elkarteen Federazioa) Gabon zoriotsuak eta urte berri ona ospatzea gaitzat duen argazki lehiaketa antolatu du. 14 eta 99 urte bitarteko profesional nahiz zaleei zuzendutako lehiaketa da eta azaroaren 22ra arte jasoko dira argazkiak. Lehiaketaren oinarriak: Topagunean E-maila: gazteak@topagunea.com/ Tel: 946215116) edo Elgoibarko Izarran: E-maila: atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.com/ <mailto:atxutxiamaika@e/> Tel: 943 741626). Saria argazkirako materialean gastatzeko 300 euro izango dira.

IKASTAROAK

Pintura ikastaroa

Egur Arte tailerrak pintura ikastaroa eskainiko du azaroaren 10etik 28ra bitartean. Astelehenerik ostiralera izango dira klaseak 18:00etatik 20:00etara bitartean. Egur Elkarreak Aita Agirre plazan duen egoitzan eman dezakete izena interesatuek.

Alpinismoko neguko teknika, hastapena eta hobekuntza

Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak antolatuta, "Alpinismoko neguko teknika, hastapena eta hobekuntza" ikastaroa izango da abenduaren 13an eta 14an Lizaran (Bisaurin). Irteeraren inguruko dena argitzeko bilera egingo da abenduaren 11n, 19:30ean, Anoetan, Kirol Etxean. Besteak beste, elurretako aldapetan jeitsierak eta igoerak, erorketetan geratzeko teknikak, pioleta eta kranpoien erabilera, sokaren erabilera eta korapiloak, ARVaren orientazioa eta erabilera, elurretako rapelak, maniobrak... irakatsiko dira. Prezioa 90 eurokoa da abenduaren 6a baino lehen ordainduz gero. Prezioaren barne aterpetxea, monitore bat 4 ikasleko, txostena eta autobusa sartzen dira. Bestalde, aurtengo Mendi Federatu Txartela edukitzea ezinbestekoa da. Izena emateko edo informazio gehiago jaso ahal izateko deitu 974 37 53 58 telefonora edo honako helbide elektronikora idatzi: orokorra@gmf-fgm.org

11PIR zine

KARTELDEG 1A

ELGOIBAR, Herriko Antzokian

"La pelota vasca"

8, zapatua: 19:30-22:15

9, domekia: 19:30-22:15

10, astelehena: 22:15

"Shin Chan bola galduen bila"

9, domekia: 16:30

"Happy Times" (Z.K.)

13, eguena: 22:15

"American Pie imenuda boda!"

14, barixakua: 22:15

EIBAR, Unzaga

"Matrix RevOliitions"

7, barixakua: 19:30-22:15

8, zapatua: 17:00-19:30-22:30

9, domekia: 17:00-19:30-22:30

10, astelehena: 19:30-22:15

11, martitzena: 19:30-22:15

12, eguaztena: 19:30-22:15

Ìre doy mis ojos

7, barixakua: 19:30-22:15

8, zapatua: 17:00-19:30-22:15

9, domekia: 17:00-19:30-22:15

10, astelehena: 19:30-22:15

11, martitzena: 19:30

12, eguaztena: 19:30

BARREnek ez du gerta litezkeen ernaldien aldiketen eiantzukizunik.



"La pelota vasca"

Zuzendaria: Julio Medem.

Dokumentala. (Denontzat)

Euskal gatazka gaitzat hartuz 70 pertsoneri eginiko elkarrizketak erakusten dituen filme dokumentala. Aniztasunetik abiatuz, sustrai nazionalistak eta ETaren borroka armatua bizirik dituen arazo zahar baten hainbat alorren erretratua erakustea da filmearen asmoa Julio Medem zuzendari donostiarraren hitzetan. Gaur egun erabat blokeatuta dagoen gatazkako alderdien arteko elkarrizketa bultzatzea du helburutzat, eta egia absolutua inoren menpe ez dagoela abiapuntutzat.

N



A


ste honetako erretratu zaharra Justa Eizagirrek laga digu. 1974. urtekoa da argazkia. Garai hartan, Victor Zabala zen "La Union" Elkarteko presidentea, eta San Lorentzo bailaran azeriek sekulako triskantzak egiten zituzten. Baserritarrak oso haserre zeudenez, "La Union" Elkarteko zenbait lagunek azeri batidak egiteko baimena eskatu zuten Donostian. Denbora luzez egon ziren baimenaren zain, eta lortu zutenean, 4 edo 5 txakur bildu, eta azeriak harrapatzera atera ziren 40 bat lagun. Azeri mordoa harrapatu zituzten denen artean. Argazki hau Arriola tailerra zenaren atzean aterata dago. Gogora ditzagun zein diren argazkian azaltzen direnak:

Ezkerretik eskumara: Jose Mari Aranzamendi, Tiburcio Aranburu, Jose Mari Etxabe (t), Agustin Makazaga, Rubitxi (kanpotarra), Santi Urain (t) "Alkorta", Benito Juaristi (t) "Txabola" eta Migel Agirregomezkorta (t) "Unastei".



VI. URTEURRENA

*1997ko azaroaren 8an, 30 urte zituela hil zen
SERAFIN FREITAS PROLen oroimenez,
URTEURRENEKO MEZA izango da Parrokian
larunbatean, hilak 8, arratsaldeko 19:00etan.
Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.*



Irika



Jostailltak
idazpaper
Aromat erapia
(aire-goeagarriak,
cisaidun kancielak...)



Pitxarrak 3€
Gatzontzia 0,75€
Olio ontzia 3€
Pitxar metalikoa 9€
Pisua 3,8€



Pitxarrak 27€
Gosarirako jotoa 9€
Kandelaizko
lampara 4,50€



Marko handia 9€
Marko txikia 8,40€
Lampara 39€



Hauñf. 61
Txikia 6€



Ev1,04'.4.;" 30

1.1 URTEURRENA
ANIVERSARIO
50 *friendo*

Zueliin ospalu Rahi dugu!



Zatoz tarjetoiaren

Abenduaren 9an 18.000 € (3.000.000 pzta.)
zozketatuko ditugu **7 erosketa txartetetan**

1. saria 6.000 € (1.000.000 pzta)
2. saria 3.000 € (500.000 pzta)
3. saria 3.000 € (500.000 pzta)
4. saria 1.500 € (250.000 pzta)
5. saria 1.500 € (250.000 pzta)
6. saria 1.500 € (250.000 pzta)
7. saria 1.500 € (250.000 pzta)

**ZATOZ TXARTELAREN BILA ETA
HORRELAKO EGONGELA edo SOFA BAT EROSIZ
GASTA DEZAKEZU TXARTELAREN DIRU KOPLJURUA!**

**Santa Ana 4 eta 6
Tel. 943 74 12 34**

MULTIOPTICAS
VZURY

ZERBITZU OPTIKOETAN 1 a


25. URTEURRENA ospatzeko,
gure bezeroen artean bi lagunentzako
Mediterraneoan zehar
4 itsas bidala **MA**
zozketatu ditugu,
irailean, urrian eta azaroan.



Hauek izan dira lau irabazleak:



Ma Asun
Revuelta Cano



Jose Luis
Zabala Arriola



Leo
Orodea Perez



Jose Antonio
Pires-en ordezkokoak

Gogoratu 2003ko abendurarte,
BONOArekin
%15eko deskontua
egingo dizugula

